



LIBURUA

Musikak plaza bete zuenekoa



HANS ETA IGELA

INAZIO MUJIKA IRAOLA
ILUSTRAZIOA:
MAITE GURRUTXAGA

EREIN, 2020

XABIER ETXANIZ ERLE

Pikotxean izeneko bilduma berriari eman dio hasiera Inazio Mujika Iraolak idatzi eta Maite Gurrutxagak ilustraturiko liburu honek. Eta alde horretatik esan behar dugu pozgarria dela bilduma berria plazaratzea, baita aspaldian haur eta gazte literaturatik urrun zeuden idazleak bueltatzea ere –Mujika Iraola eta Anjel Lertxundirenak dira orain arte argitaratutako bi liburuak, bai eta iragarri diren hurrengo biak ere–.

Hans mutila dugu istorio honetako protagonista nagusia; bera eta berarekin dabilen igela. Europako ipar aldeetik datorren mutilak motxila erantzitako sagar bat jateari ekiten dio plazako arkupeetan. Eta plaza horretan jazotakoa dugu liburu honetako kontakizuna, izan

ere Hans, ateri denean, plaza erdian hasi baita biolina jotzen; berak musika jo eta igelak saltoak eman.

Apurka jendea inguratzen hasten da Hans eta igelaren ondora, hasieran bakar batzuk, geroago beste batzuk gehiago... harik eta pilatutako jendetza ezin mugitu arte. Eta orduan hasten dira komerriak, alkatea ere tartean, mugitu ezin diren horiek denek plaza husteko, lagun horiek denak handik irteteko.

Deigarria da Mujika Iraolak darabilen hizkera, kontakizunari ematen dion erritmoa eta nola jolasten duen hitzekin: "Igandero dantzara agertzen zen dantzazale aparta, ttuttunero besomotza, bixigu begiak zituen arrantzalea eta beste asko eta askorekin berrogeita seiren bat bai, joan den astean plazako teiltuan

umeak egin zituen katua ere kontaktuta". Istorio honen kontakizunean garrantzi handiagoa hartzen baitu, zalantzarik gabe, nola kontaktzen den, zer kontaktzen den baino. Gertakari simple hori, plaza bete eta hustu beharra, umoretik, jolasetik, ironiatik eta komentario kritikoretatik ere narratu izan digulako idazleak.

Hans eta igela berehala irakurtzen den istorioa dugu; arina argumentuan, erakargarria idazleak darabilen estilogatik, entretenigarria istorioaren nondik norakoetatik eta ikusgarria Maite Gurrutxagak ilustrazioen bidez egiten duen jolasagatik. Lastima azken irudiak *spoiler* bat egitea eta hurrengo orrian testuan ageri dena aurreikustea; baina akats txiki horrek ez du, inola ere, liburu honen interesa gutxitzen. ●